

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Hobitik gorpu berriak atera dituzte Larrasoañan, eta, horrekin, San Kristobal Gotorlekutik ihes eginda zeuden 4 gorpu berreskuratu dira

Umetan gertakari horiek bizitu zituen herritar baten lekukotasunari esker aurkitu dute hilobia

Asteartea, 2018.eko uztailak 3

Nafarroako Gobernuak, Bakearen, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritza Nagusiaren bitartez, 1936ko kolpe militarra jasan zuten lau biktimen gorpuzkiak berreskuratu ditu Nafarroako Larrasoaña herrian.

Hilerriaren kanpoko hilobi batean lurperatuta zeuden lau biktima horiekin bat eginik, 72 dira jada Nafarroako Gobernuak hobitik ateratzeko ahalegin horretan berreskuratu dituen gorpuak. Guztira 17 hobitik ateratze egin dira, eta 20 bat azterketa.

Nafarroako Gobernuak Esteribar haranean zenbait hobitik ateratze egin zituenean, Larrasoñaiko Paulina Lizoain 89 urteko bizilagunak umetan bizitakoaren lekukotasuna ematea erabaki zuen, ezinbestekoa izan zena lau gorpu horiek topatu eta hobitik ateratzeko.

Haran honetatik igarotzen da 1938an Ezkabako espetxetik ihes egindakoen urratsak jarraitzen dituen mendi-ibilbidea [GR-225](#). Balioesten da ihes egin zutenetatik 50 bat tiroz hil zituztela, eta baliteke horietatik 3 Usetxin, 3 Urdazin, 5 Urtasunen eta 2 Lenarotzen [Leranotz](#) hobitik atera izana, gaur Larrasoñan berreskuratu diren lau gorpuez aparte.



Gorpuak hobitik ateratzen, Larrasoñaiko hilerritik gertu.

Galería de fotos



Un momento de la exhumación.